


Euskal AEko ingurumen-ekonomiaren Balio Erantsi Gordina % 8,2 hazi zen 2022an

Enpleguari dagokionez, ingurumen-ekonomiak 27.740 enplegu sortu zituen, ekonomia osoaren % 2,9

Euskal AEko ingurumen-ekonomiak 2.176 milioi euroko Balio Erantsi Gordina (BEG) sortu zuen 2022an, BPGren % 2,51, Eustaten datuen arabera. 2021. urteari dagokionez, ingurumeneko BEGaren urte arteko tasak % 8,2ko hazkundera izan zuen, ekonomia osoarako Barne Produktu Gordinaren hazkundera baino txikiagoa, % 10,2 hazi baitzen aldi berean.

Ingurumeneko Ondasun eta Zerbitzuen Kontua (IOZK) Eurostaten metodologiari jarraituz egiten den ingurumen-kontuen sistemaren parte da. Kontu horiek aukera ematen dute ekonomia- eta ingurumen-alderdiak integratzeko, Kontabilitate Sistema Nazionalarekin modu koherentean. Ingurumen-ondasunen eta -zerbitzuen azpisektorea (ingurumen-ekonomia) honako hauek osatzen dute: **ingurumena babesteko** ondasunak eta zerbitzuak ekoizten dituen ekonomiak, eta ingurumenaren gaineko presioak murrizteko edo ezabatzeke **baliabide naturalak kudeatzeko** jarduerak.

Euskal AEko ingurumeneko Balio Erantsi Gordina, jarduera ekonomikoen arabera (p). 2022



(P) behin-behineko datuak

Iturria: Eustat. Ingurumen-kontuak. Ingurumen-ondasun eta zerbitzuen kontua

Sektore ekonomikoen arabera, eta **ingurumenaren BEGari** dagokionez, 2022an **Zerbitzuen** sektorearen ekarpena nabarmentzen da (% 27,5), ondoren **Erauzketa industriak eta Manufakturak** (% 24,0), **Eraikuntza** (% 23,5), **Ur hornidura, saneamendua eta hondakinen kudeaketa** (% 16,5) eta, azkenik, **Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza** (% 5,6) eta **Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta airearen hornidura** (% 2,9).

Euskal AEko ingurumen-ondasun eta -zerbitzuen sektorearen Balio Erantsi Gordina, jarduera-taldean arabera (p). 2021-2022

	2021	2022	Ingurumeneko BEGaren gaineko %		Urteko aldakuntza-tasa (%)
	(milaka euro)	(milaka euro)	2021	2022	2022/2021
Ingurumeneko BEG GUZTIRA	2.010.432	2.175.766	100,0	100,0	8,2
A: Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	91.764	122.913	4,6	5,6	33,9
B+C: Ateratze eta manufaktura-industriak	430.759	521.188	21,3	24,0	21,0
D: Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura	107.855	61.323	5,4	2,9	-43,1
E: Ur hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa	343.250	358.986	17,1	16,5	4,6
F: Eraikuntza	484.669	512.117	24,1	23,5	5,7
G-U: Zerbitzu-sektorea	552.135	599.239	27,5	27,5	8,5
BGP m/p	78.709.402	86.714.411			10,2

(p)behinbehineko datuak

Data 2024ko Abenduaren 19a

Iturria: Eustat. Ingurumen-kontuak. Ingurumen-ondasun eta zerbitzuen kontua

Sektore ekonomikoen arabera, eta garrantziaren arabera, *Zerbitzuetako* ingurumen-enplegua **ingurumeneko enplegu** osoaren % 32,4 da; ondoren, *Eraikuntza* (% 25,4), *Erauzketa eta Manufaktura* (% 20,4) eta *Ur hornidura, saneamendua eta hondakinen kudeaketa* (% 16,6) daude. Era berean, guztizko ingurumen-enpleguari ekarpen txikiena egiten dioten sektoreak *Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza* eta *Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta airearen hornidura* dira, % 4,8 eta % 0,4, hurrenez hurren.

Euskal AEko ingurumen-ondasun eta -zerbitzuen sektoreko lanaldi osoaren baliokide diren lanpostuak, jarduera-taldean arabera (p). 2021-2022

	2021	2022	ingurumen-enpleguaren gaineko %		Urteko aldakuntza-tasa (%)
			2021	2022	2022/2021
Ingurumeneko DOB, guztira	26.481	27.740	100,0	100,0	4,8
A: Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	1.093	1.325	4,1	4,8	21,2
B+C: Ateratze eta manufaktura-industriak	5.049	5.681	19,1	20,4	12,5
D: Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura	193	102	0,8	0,4	-47,2
E: Ur hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa	4.476	4.610	16,9	16,6	3,0
F: Eraikuntza	6.977	7.040	26,3	25,4	0,9
G-U: Zerbitzu-sektorea	8.693	8.982	32,8	32,4	3,3
Ekonomia osoaren lanaldi osoko baliokideak	926.449	953.067			2,9

(p)behinbehineko datuak

Data 2024ko Abenduaren 19a

Iturria: Eustat. Ingurumen-kontuak. Ingurumen-ondasun eta zerbitzuen kontua

Ingurumen-zifrak ekonomia osoarekin lotzen dituzten **adierazle nagusiei** erreparatuz gero, ingurumenaren gaineko BEG 2022ko BPGren % 2,51 da eta, bestalde, ingurumen-enplegua, lanaldi osoko lanpostu baliokideen arabera neurtuta, 2022ko enplegu guztiaren % 2,91 da.

Euskal AEko ingurumen-ondasun eta -zerbitzuen sektorearen adierazleak, jarduera-taldean arabera (p). 2021-2022

f X Eustat-Euskal Estatistika Erakundea



	Ingurumeneko BEGd, BPGaren % gain		Ingurumeneko enplegua (lanaldi osoko baliokidea), guztizko enpleguan (lanaldi osoko baliokidea)	
	2021	2022	2021	2022
Ingurumena, guztira	2,55	2,51	2,86	2,91
A: Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	0,12	0,14	0,12	0,14
B+C: Ateratze eta manufaktura-industriak	0,55	0,60	0,55	0,60
D: Energia elektrikoaren, gasaren, lurinaren eta aire girotuaren hornidura	0,14	0,07	0,02	0,01
E: Ur hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa	0,44	0,41	0,48	0,48
F: Erakuntza	0,62	0,59	0,75	0,74
G-U: Zerbitzu-sektorea	0,68	0,70	0,94	0,94


(p)behinbehinekoko datuak

Data 2024ko Abenduaren 19a

Iturria: Eustat. Ingurumen-kontuak. Ingurumen-ondasun eta zerbitzuen kontua

Europako gainerako herrialdeekin alderatuz, Eurostatek argitaratutako 2021eko azken datuak aztertu dira. Euskal AEko BPGren gaineko ingurumen BEGren adierazlea % 2,54 da, Polonia (% 2,46), Herbehereak (% 2,47) eta Frantzia (% 2,98) eta Luxenburgo (% 2,94) baino zertxobait gehiago. Datu horien arabera, Euskal AE EB-27ko batez bestekoaren gainetik dago (% 2,49), eta Finlandia (% 5,97), Austria (% 4,80) edo Estonia (% 4,59) dira EBko ingurumen-ekarpenaren buru.

Ingurumen BEG BPGd-ren gainean




Data 2024ko Abenduaren 12a

Iturria: Eustat. Ingurumen-kontuak. Ingurumen-ondasun eta zerbitzuen kontua eta Eurostat- EGGS / GDP

Europako araudiari jarraituz, bi eremu handi bereizten dira ingurumen-helburuaren arabera: **ingurumena babesteko jarduerak** eta **baliabideak kudeatzeko jarduerak**, elkarrengandik baztertzailak direnak. Ingurumena babesteko jarduerak Ingurumena Babesteko Jardueren Sailkapenean (**IBJS**) deskribatzen dira; eta baliabideak kudeatzeko ingurumena babesteko jarduerak, berriz, Baliabideak Kudeatzeko Jardueren Sailkapenean (**BKJS**) deskribatzen dira.

Euskal AEko ingurumeneko Balio Erantsi Gordina, ingurumen-eremuen arabera (p). 2022



(p) behin-behineko datuak

Iturria: Eustat. Ingurumen-kontuak. Ingurumen-ondasun eta zerbitzuen kontua

2022an ingurumenaren gaineko BEGn pisu handiena izateagatik nabarmentzen den eremua Energia eta beroa kudeatzea eta aurrezte (BKJS 13B) da, % 26,3rekin; ondoren datoz, % 22,3rekin, uraren, baso-baliabideen, fosilen eta mineralen kudeaketarekin lotutako jarduerak eta produktuak; ingurumen-kudeaketara bideratutako I+G; baliabideen kudeaketako hezkuntza eta ingurumen-zuzendaritzarako laguntza (beste AGAE batzuk). Nabarmentzekoak dira, halaber, hondakinen kudeaketarekin (IBJS 3) lotutako jarduerak eta produktuak, ingurumen-balio erantsiaren % 17,5 hartzen baitute, eta ingurumena babesteko beste jarduera batzuk, hala nola zarata murriztea, biodibertsitatea eta paisaiak babestea, etab. (Beste IBJS batzuk), ingurumeneko BEGaren % 14,3.

Ingurumen BEGd-ak BPGri egiten dion ekarpenari dagokionez, baliabideak kudeatzeko jarduerak % 1,32ko ekarpena egiten dute, eta ingurumena babestekoek, berriz, % 1,19koa 2022an. Ingurumen-enplegua aztertuta, BKJS baliabideen kudeaketari lotutako jarduerak % 1,45 egiten dute, eta IBJS ingurumen-babeserako jarduerak, berriz, % 1,46.

Zehazki, Energia/beroa kudeatzea eta aurrezte (% 0,67 eta % 0,73, hurrenez hurren) izan zen ingurumenaren gaineko BEGari eta ingurumen-enpleguari gehien laguntzen dion ingurumen-esparrua.

Euskal AEko ingurumen-ondasun eta -zerbitzuen sektorearen adierazleak, ingurumen-eremuaren arabera (p). 2021-2022

	Ingurumeneko BEGd, BPGaren % gain		Ingurumeneko enplegua (lanaldi osoko baliokidea), guztizko enpleguan (lanaldi osoko baliokidea)	
	2021	2022	2021	2022
(IBJS + BKJS) GUZTIRA	2,55	2,51	2,86	2,91
IBJS GUZTIRA	1,21	1,19	1,45	1,46
IBJS 1 - Airearen eta klimaren babesa	0,17	0,18	0,18	0,18
IBJS 2 - Hondakin-uren kudeaketa	0,15	0,12	0,17	0,15
IBJS 3 - Hondakinen kudeaketa	0,44	0,44	0,51	0,52
IBJS 4 - Lurzorua, lurpeko urak eta lurrazaleko urak babestea eta deskontaminatzea	0,11	0,09	0,18	0,16
BESTE IBJS BATZUK	0,34	0,36	0,41	0,45
BKJS GUZTIRA	1,34	1,32	1,41	1,45
BKJS 13A - Energia iturri berriztagarrien bidez ekoiztea	0,09	0,09	0,04	0,07
BKJS 13B - Energia/beroa kudeatzea eta aurrezteak	0,71	0,67	0,75	0,73
BESTE BKJS BATZUK	0,54	0,56	0,62	0,65

(p) behinbehineko datuak

Data 2024ko Abenduaren 19a

Iturria: Eustat. Ingurumen-kontuak. Ingurumen-ondasun eta zerbitzuen kontua

Oharra:

Gaur 2021erako eta 2022rako argitaratutako datuek datu horiek berrikusi eta eguneratu dituzte Kontu Ekonomikoen zifra berriekin. Zifra horiek 2022ko Oinarriko zenbatespen berriak zabaldu dituzte, Balio Erantsiari eta Lanaldi Osoko Lanpostu Baliokideei buruzko informazio eguneratua barne.

Gainera, Ingurumeneko Ondasun eta Zerbitzuen Kontuak berak, Eurostatek emandako gomendioen eta Europako Batzordeak 2015etik egindako arau-berrikuspenen arabera (2015/2174 Erregelamendua (EB)), metodologia berriak ezartzen ditu IBJS eta BKJS sailkapenetik abiatuta, eta, ingurumen-domeinu bakoitzerako, ingurumen-ondasunen eta -zerbitzuen eta jardura ekonomikoen zerrenda adierazlea zabaltzen du (2024/1769 (EB) Erregelamendua). Horren ondorioz, informazio-iturriak eta zenbatespen-metodoak berrikusi behar izan dira, zenbatespenak hobetzeko. Zenbatespen horiek eragin berezia izan dute sektore garrantzitsuetan, hala nola Energian, Motorraren eta bere laguntzaileen industrian, Materialen berreskurapenean, I+Gn eta Administrazio Publikoan.

Lehen fasean, 2021erako eta 2022rako eguneratzea egin da, eta, beraz, orain arte argitaratutako datu-serieak eten egin dira, eta, ondorioz, ezin da konparazio homogeneorik egin.

Hori dela eta, 2021a baino lehen argitaratutako datuak berrikusi eta berriro kalkulatu behar dira, metodologia berriak kontuan hartuta. Berrikuspen hori bigarren fase batean egingo da, eta bertan erabiltzaileen eskura jarriko dira datuen serie homogeneoak.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz Servicio de

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62